



**UMANDI GURASO ELKARTEA**

[www.umandi.net/ampaumandi](http://www.umandi.net/ampaumandi)

## ***GURASO ELKARTE BILERA***

---

Umandi ikastolan 2014ko abenduak 18 astelehena, eta aurrez horretarako deialdia egin ondoren guraso elkarteko partaideak bildu dira, ondorengo hauek bertaratuaz:

Nuria Alonso Lafuente (lehendakaria), Ana Arroyo (lehendakari orde eta diruzaina), Itsaso Imaz (idazkaria), Encarna Bonilla, Peio Cernadas , Bego Gaviña , Rita Minguez, Juan Carlos Saenz, Beatriz Sáez, Nerea Salazar , Vega Terrazas, , Ainhoa Velez.

Hasiera ordua: 17:00.

Bukaera ordua: 18.45.

### **EGUNEKO AZTERGAIK**

#### **- AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARTZEA.**

Bileraren deialdiarekin batera aurreko akta bidali zen irakurritzat eta onartutzat ematen da.

#### **- FUTBOL ETA SASKIBALOI KIROL-JERTSEAREKIN ARAZOAK.**

Futbol eta saskibaloiko kirol-jertsearekin arazoak sortu direnez Athhoneko arduradunak etorri dira azalpenak ematera.

Badirudi hasierako kirol-jertseen neurria, haurrek probatu zutena eta bukaeran etorri direnen neurria ez datozela bat. Serigrafia ere ez da eskatu zen modukoa. Guraso batzuen aldetik kexak sortu dira kirol-jertsearen kalitatea dela eta.

Arduradunek azaldu dute neurritz gaizki dauden kirol-jertseak lehen bai lehen banatuko direla, eta kalitatearen gainean, jertsea entrenamentuetarako eta partiduetara eramateko jertse bezala planteatuta zegoela, sinplea eta kalitate prezioarekin bat zetorrela.

Bertaratutako guraso elkarteko partaideak ados agertu dira azalpenekin eta jertsearen helburua ez dela goitik bera ekipaturik joatearena, zerbait sinplea talde modua identifikatzeko helburuarekin.

Athloneko arduradunek gutun bat idatzi dute azalpenak emanaz aktari atxikitua joango dena.

- **OLENTZEROREN JAI:**

Abenduak 23 hamarretan izango da Olentzeroren jai, aurreko urteetako Olentzeroa berreskuratu da, Koldo Mitxelenako irakaslea den Jordan Illarramendi.

- **IKASTOLAKO JAIAREN DATA ALDAKETA:**

Ikastolako jai egunez aldatzea proposatu da, aukeratutako eguna, ekainak 20 a, auzoko jaiekin batera delako, eta ekainak 16an egitea proposatu da. Baina ekainaren 16 an Crescendo abesbatzara doazen 6.mailako ikasleak kontzertua dutela eta gainera 6.mailako gehiengoak 20 an nahi duela. Eztataidatu ondoren berriro egiten da bozketa eta ekainak 20ko data ateratzen da berriro ere.

Partaide baten kexa jasotzen da,bozketak behin egin ondoren ezin direla errepikatu nahi duguna atera arte, eta hau aktan jaso dadila.

- **“UMANDI.EUS” DOMEINUAREN ERREJISTROA:**

Domeinu berri bat atera da .eus, eta aldatzeko posibilitatea aurkezten da.

.net domeinuaren errejistroa 10 €.

.eus domeinuaren errejistroa 50 €.

Ez dago arazorik aldatzean ze automatikoki dena bideratzen da. Erabaki da aldatu egingo dugula.

- **BESTELAKOAK:**

- Web orria:

Beste ikastetxe batzuetako Web orriak begiratzen aritu dira eta gehienetan guraso elkarteko edukiak eta eskolako edukiak desberdinduta daude.

Gurean eduki asko errepikatu egiten dira.

Proposatzen da bikoiztutako edukiak kentzea, eta sarrerako orrian lehenik berriak agertzea eta bereiztea :

Guraso elkarteko edukiak:

Kanpoko ekintzak.

Jolasen txokoa.

Guraso eskola.

Ikastolako edukiak:

Liburtxo eta euskara batzordea kendu, Nortzuk gara? utzi eta argazkietarako Flirk era lotura bat egitea.

Beste aztergairik gabe bilera bukatutzat ematen da 18,45etan.

Nuria Alonso

Itsaso Imaz

Lehendakaria-

Idazkaria

**UMANDI GURASO ELKARTEA**

[www.umandi.net/ampaumandi](http://www.umandi.net/ampaumandi)